

Antxon Gomez

Gasteiz, 1964. Aian (Gipuzkoa) bizi da. Basozaina da Pagoeta Parkean. EAE-ANVko idazkari nagusia. ANVk 252 zerrenda aurkeztu zituen foru eta udal hauteskundeetan eta Espainiako Fiskaltza Nagusiak horietatik 133 inpugnatu ditu, baita ASren zerrenda guztiak (232) ere. Auzitegi Goreneko eta Konstituzionaleko epaileen azken erabakia ezagutzeko 48 ordu falta zirela hitz egin dugu berarekin: “20.000 pertsona ikertuak eta jazarriak izan ondoren, erabakia edozein dela ere, hauteskunde hauek ukituta daude”, esan digu. Azken unean –kanpaina hasi unean– ezagutu dugu erabakia: epaileek fiskalak egindako inpugnazio guztiak onartu dituzte.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco



«Batasuneko 20.000 kide esanguratsu al daude?»

Espainiako Estatuko fiskal nagusia Cándido Conde Pumpidok ANVren 133 zerrenda inpugnatu ditu. Zerrenden %20 kutsatuta dagoela eta gainerako %80 inbaditu dituztela argudiatuz.

“Kutsadura”, “inbasioa” edo “ehunekoak” direla eta ez direla, ez dugu eztabaida antzuan sartu nahi. Terminologia hori onartzea terminologia faxista eta nazia onartzea da. Hemen ez dago herritar kutsaturik ez zerrenda inbaditurik, hemen herritarren eskubide zibilak urratzen ari dira. Hizkuntza horren erabilpenak Estatuko auzitegi eta erakunde ez demo-

kratikoen izaera are ageriago utzi du. Edonola ere, gure zerrenden %20k %80 inbaditzen duela adieraztea logikaren aurka joatea da. Edonork %80k %20 absorbitzen duela esango luke. Bestalde, hainbat jende duela lau urteko herri zerrendetan joan zelako “kutsatuta” dago bizitza osorako? Batasuneko kide esanguratsuak direla dio fiskalak. Batasuneko 20.000 kide esanguratsu al daude?

... ANVko zerrendak baliogabetu dituzten argudio juridiko berberekin balio-

gabetu zitezkeen, adibidez, Na-Baiko zerrendak: Patxi Zabaleta, Txentxo Jimenez, Iñaki Aldekoa, Milagros Rubio, HBko eta EHko hautagaiak izan direnak. Zergatik batzuk bai eta beste batzuk ez? ANVko hautagaiak ez al dira Na-Baikoak bezain legalak? Esaterako, Plazandreok kandidaturan –sinpatia guztiaz diot–, HBko edo EHko zerrendetan izandako pertsonak daude. Funtsean, jendeari ez zaio galdetu zergatik doan ANVko zerrendetan. Epaituak eta kondenatuak izan dira beren eskubideen defentsa egiteko aukerarik eman gabe.

“Justizia koloniala” garaitzeko “guda legala” planteatu duzue.

Justizia koloniala aipatu dugu herri txiki batzuetan oso egoera mingarria bizi dugulako. Espainiako auzitegiak Euskal Herriko azken herri eta baserrietan zer bozkatu daitekeen eta zer ez erabakitzen ari direlako. Esaterako, Altzo, Lizartza edota Elduaingo egoerak hain dira absurduak, non zerrenda bakarra PPrena den, eta PPK ez du boz bakarra atera herri horietan. Onartezina da zurrumbilo mediatikoak eta auzitegieta-ko gorabeherak milaka pertsonen eskubide zibilen urratzea eta estatzea, ezta ustezko ideologia dela-eta milaka pertsonen aurkako jazarpen poliziala eta azterketa judiziala onartzea ere. Hori salatu beharra dago.

“Guda legala” planteatzeko aukera badago?

Judikaturak erakutsi duen arrazionaltasun mailarekin, nekez. Horrelako absurduetara iritsi ondoren, oso zaila da pentsatzea “guda legala” aurrera eramane daitekeenik. Baina, ANVk betidanik, ahal izan duenean, legalitatearen barruan mugitu da, eta behartuta gaude bataila legala lantzerako. Baina ez gaitezen bidean galdu, hemen bereziki jokoan dagoena bataila ideologi-

“ETAk dioenak baldintzatu behar du alderdi batzuk egotea eta beste batzuk ez? EAJren arazo bakarra da ezker abertzalea erakundeetan egotea”

koa da: herritar guztion eskubide zibil eta politikoen defentsa.

EAJ izan duzue hizpide azkenaldion, bere “azpilana” aipatu du ANV.

EAJren azpilana nabarmena eta eraginkorra da guztiz. EAJ bere bateria mediatiko guztiak erabiltzen ari da herritarrei “ezkerreko abertzaleen aurkako erasoaren ardura da” esateko. Hedabideen erasopean gaude, EAJren laguntzaz. Erakundeetan egoteko, alderdien estatutuaren biolentziaren aurkako “zorioneko” gaitzespena agertzea eskatzen du EAJk. EAE-ANVren estatutuaren hori idatzita dago, baina orain beste aitzakia bilatu dute.

Zein aitzakia?

ANV ezin aurkeztuaren arrazoia ETAk hau edo beste esan duena omen da. ETAk dioenak baldintzatu behar al du

alderdi batzuk egotea eta beste batzuk ez? Zer joko da hau? EAJren arazo bakarra da ezker abertzalea erakundeetan egotea, oso eroso dago ezker abertzalea kanpoan egonda, izan dezakeen oposizio politikoa bakarra baikara.

Josu Jon Imazek berriz PSOE eta Bata-suna jokoan ari direla esan du.

Ezker abertzalea eraso dutenean, EAJk esan ohi du eraso oso ondo etortzen zaigula propaganda egiteko, propaganda merkea, alegia. Aldiz, epaileek Ibarretxe jauna auzipetzea erabaki dutenean, EAJko jendea Ermuko Foruaren kideen aurka ostikoka aritu da eta hedabideetako lehen orrialdeak eta planoak hartu dituzte. Agerraldi horiek ez al dira propaganda merkea?

EAJk gizarteko parte handi baten sufrimenduari fribolizatzen du, ezker abertzalearen sufrimenduari bereziki. Ibarretxe jauna kartzelara eramango zuten berria –PP Guber-nuan zela– zabaldu zenean, Jose Antonio Rubalkaba jeltzaleak kartzelara oporretara joango zirela esan zuen, txisteak egin zituen. Jeltzaleek txisteak egiten dituzte badakitelako ez direla sekula joango kartzelara arrazoi juridiko-politikoengatik, agian, ustelkeria kasuengatik joango dira, baina ez Estatuari egindako intsumisio politikoa praktikatzeagatik. Mingarria da herriaren parte baten sufrimenduari fribolizazio merke hori, jite moral ustela agertzen dute.

Josu Jon Imazen iritziz, halaber, hauteskundeak ezin dira lotu bake eta normalizazio prozesuarekin.

Imazek goizean gauza bat dio eta beste bat gauean. Hauteskunde hauetan ematen ari diren urraketa politikoez dituztela hauteskundeak deslegitimizatzen dio. EAE alderdi laikoak da eta EAJ nahiko konfesionala –hori ukatzen duten arren– eta trinitatearen misterioan sinesten dute. Guretzat hauteskundeak, bistan da, lotuta daude bake eta normalizazio prozesuarekin.

Nafarroako ANVko hautagaiek PSOEk UPNri erakundeak oparitu izana salatu dute, bestalde.

Urralburu eta Roldanen kasuak gogoratu besterik ez dago. PSN lapurreriak eta ustelkeriak kutsatuta dago oraindik ere. Harrezkero ez dira gauza izan eskubide politikoen defentsan burua



“Espainian frankismo soziologikoa nagusitu da. Iruñeko artzapezpiku Fernando Sebastianek esandakoa [Falange aintzat hartzeko delat] lekuko”.

EAE-ANV ETA EZKER ABERTZALEA

“ANVk ez du Batasunarekin harreman organikorik”

HERRI BATASUNA (HB) desagertu zenean ANVk HBrekin zituen lotura organikoak amaitu ziren. Euskal Herritarrok (EH) sortu zen ondoren: Batasuna, egun Aralar dena, Zutik, Batzarre eta ANV barne ginelarik. EH desegin eta gero, Batasunaren prozesuan parte ez hartzea erabaki genuen. ANVk ez du Batasunarekin harreman organikorik izan.

BATASUNAREN egiturarekin ezta lerro politikoarekin ere ez ginen ados. Egun, normaltasun politikoa lortzea dugu helburu, sentsibiltate ezkertiar abertzale guztiak elkarrekin aritu eta euskal eskuin jeltzideei —beraiek Eusko Alderdi Jeltzalea dira, gu Eusko Abertzale Ekintza gara— eta UPNri ezkeraren benetako alternatiba politikoa gauzatzeko eta erakundeetan aritzeko.

ARALAR ezker abertzalearen sentsibiltate nagusia izateko jaio zen eta jira-bira dabil, ziba bat bezala. Oso epe motzeko politika egiten ari da, koitunturazkoa. Ezker Batuarekin (EB) koalizioan dabil orain, norabide galduan, boto kopuru minimoen bila, %5a gaintitu behar dute kargu politiko batzuk lortzeko. Nafarroa Bai-k (Na-Bai) berriz, ezker abertzaleko sentsibiltate nagusiei betoa jarri die, Batasunak nahiz EAE-ANVk ordezkari dezaketzen sentsibiltateei. Gurekin sekula ez dira harremanetan jarri, Na-Bai-n parte hartu nahi ote genuen ezagutzeko. Libreki dira nahi duten politika egiteko, baina bazterketa landu dute eta kontsekuente izan beharko dute jarrera horrekin.

altzatzeko. PSNren norabide politikoa izar loka baten antzekoa da: gaur Nafarroako politika lideratu nahi duela dio eta bihar UPNrekin itun politikoa egingo du. UPNk berriz, Estatuko eskuinaren muturreko sentsibiltatea ordezkatzeko du. PSN UPNrengana hurbiltzeak ez dela Urralbururen garaia gaintu frogatzen du. Halaber, Espainian frankismo soziologikoa nagusitu da. Iruñeko artzapezpiku Fernando Sebastianek esandakoa [Falange aintzat hartzeko dela] lekuko. Duela 20 urte ez zuen hori esango, gaur egun bai. Frankismo soziologikoaren eta totalitarismoaren garaipena eman da Estatuan.

Bien bitartean udal eta foru politika bigarren planoan geratu da.

Hori da larriena. AHTren proiektuaz, hirigintzaz, zaborren birziklapenaz, garraio publikoaz eta politika sozialaz ez da hitz egiten. EAJk egoera ezker abertzaleari interesatzen zaiola dio. Gezurra. Egoera hau EAJri interesatzen zaio, udal eta foru erakundeetan eraman duen politika estali baitu: porlanaren politika, herri askotan oposizio politikorik gabeko barra libreko politika egin du eta oso pozik dago.

Duela 4 urte AuBren zerrenda guztiak baliogabetu zituzten, orain ASren zerrendekin gerta daitekeen bezala. ANVren zerrenda batzuk baliagarriak izan daitezke ordea. Beste joko bat dago antza. Edozein dela joko, zerrenda

bakar bat legez kanpo uzteak defizit demokratiko nabaria agertzen du.

ANVk zer egingo du horrelako egoera ematen bada?

Guk ez dugu uneon esango zer egingo dugun eta zer ez.

Gerta daiteke herritar batzuek ASren aldeko boto baliogabea erabiltzea eta

beste batzuek ANVri boto baliagarria ematea...

Unea iritsitakoan hitz egingo dugu. Egoera asko eman daitezke, baina hainbat erantzun ematea edota jarrera ezberdinak hartzea ere. Gauza bat begi-bistakoa da: 20.000 pertsona ikertuak eta jazarriak izan ondoren, hauteskunde hauek ukitu-ta daude. ■